

1. SARIA (2004)

AMODIOZKO GUTUNEN ETA ESALDIEN LEHIAKETA



Egilea: MODESTO ARRIETA (zarauztarra)

Zarautz, 2003.eko maiatzaren 26a

Nire aingeru kuttuna:

Egunsentian, kafesnea eta magdalena bat gosaldutik ondoren, lanera abiatu naizenean, goizak, hego haizearen magalean, zalantza aurpegia zuen, ez baitzekien oraindik eguzkirik ala euririk egin. Bidean, besteetan baino urdurixeago sentitu naiz, eta herriko parkera iristerakoan, nire animaliak, nik zaintzen ditudan beltxargak, ahateak, antzarrak, indioilarrak, arrainak,... besteetan baino urduriago topatu ditut. Eguraldi epel haizetsuagatik izango zela pentsatu dut, baina berehala konturatu naiz, asteburuan, betiko astakirtenak bereak eta bi egiten aritu direla, ahate batek hanka apurtuta, inguruko zakarrontziak erreta eta zuhaitz enbor guztiak graffitiz beteak agertu baitira.

Astelehen goiza gogorra izan da, Angels, eta kale Nagusi osoa sprint batean egin badut ere ezin izan dut geure ordu zehatzean iritsi. Barkatu egin beharko didazu, beraz, berandu iritsi izana. Imajina ezazu nola sartu naizen Politena tabernan, abiada osoan, sarrerako atea ia bere lekutik ateraez eta Parrokiko erloju konpondu berriak arratsaldeko ordu biak eta zortzi minutu markatzen zituen bitartean.

Tabernan sartu ordutik konturatu naiz hantxe zeundela betiko lekuan, barraren muturrean, nire zain, sukaldaria ematen duen leihatilaren ondoan. Bihotzak irauli egin dit, itsasoko olatu oro nire errailetan lehertuko bailiran. Joxemari tabernariak berandu nentorrela esan dit, burua egunkaritik altxa gabe, baina bere aurretik korrika pasa naizenean, begiak betaurreko gainetik nire arrastoan txirrist eginez, berandu habil, Iñakiiii, telediariora hasita zegok!...Tabernan sartu ahala, nire begiak zueretan tinkatu ditut eta aurrez aurre zure ondoan eseri naiz gaur ere. Joxemarik, ederra zegok e!...esan badit ere ez diot jaramonik egin eta, berriro, zure begi beltz eta borobiletan pausatu ditut nireak.

Zure gau beltzez biribilduriko perla-begiekin maitasunez besarkatu naute, kopetak harrotasunez, ezpainekin maitalearen pasioaz, irribarreak konplizitateaz, betazalek ekialdeko magiaz, masaileko oreztak lotsagabekeriaz, ile beltzak -bi belarriak estaliz eta aurpegiaren erdialdea azpimarratuz- misterioaz, eta lepoak -alkandoraren papar-hegalak mugaturiko bular erdialdearekin bat eginez- beltxargaren liraintasunaz. Une horretan, pena eman dit zure hankak ezin ikusi ahal izatea, eta, begiak nire indar guztiarekin itxiz, zure kanelazko zangoak imajinatu ditut, ezti eta almendrazko izterrak, zetazko galtzerdi beltz gardenez laztandurik.

Hala ere, zukan gehien maite dudana, Angels, kontatzen dizkidazun istorioak dira, edozein kontakizun arrunti ematen diozun xarma, gozotasuna eta sinesgarritasuna. Agian, niri ezinezkoa egiten zaidalako edo, agian, orain arte inork ez dizkidalako horrelako istorioak kontatu. Niretzat horixe da gogorrena, den dena buruan antolatu ondoren hitz eginez gauzatu behar denean total-motelka jartzea, kir-kir-kirten inuzente baten antzera. Dena den, besteetan zera pentsatu izan dut, horrela nire herabetasuna ezkutatzeko dela eta errazago egiten zaidala zure gau beltzeko begiak, zure irribarre sorgindua, zure ezpain mamitsuak, marmolez zizelaturiko sudur azpiko bidezidor hori, zure txokolatezko orezta eta zure beltxarga-lepo zoragarria miresten egotea, zure ahots gozo eta epel horrek besarkatzen nauen bitartean.

Dena den, gauza bat esan behar dizut, Angels, telediarriko txanda aldatu dizutenetik, orduarekin justu xamar ibiltzen banaiz ere, lasaiago egoten garela biok elkarrekin konturatu naiz, nahiz eta Joxemari-ren txantxak tarteka pairatu behar izan. Lehen, gaueko telediarria aurkezten zenuenean, txikiteo ordua bete-betean, buila eta iskanbilarekin ezin izaten nuen zure istorioetan murgildu; gainera, jende alua dago mundu honetan eta han hasten ziren koadrila osoak, "Angels, An-gels, An-gels,..." adarra jotzen. Baina niri bost axola, kasurik ez, eta telemandua nik edukitzen nuenez, ahotsaren bolumena altxa eta, nire eta zure, zure eta nire, bion arteko burutazioetan barneratzen nintzen berriro.

Orain, aldiz, aste egunetan ordu bietan ez da inor egoten tabernan, Joxemari ez bada, eta, ordurako, bapo bazkalduta egoten da bere tripa galanta mostradorean igurtziz, egunkaria goitik beheraino irakurtzen, eta "farias" lehor horietako bati, kea eta sustraia ateratzen, txotx eta guzti. Baina niri telebista gobernatzen uzten dit. Nik, ordainetan, jendeak tabernako mahaian utzitako basoak eta zikinkeriak garbitzen dizkiot.

Baina gaur gertatu zaidana kontatu nahi dizut, Angels. Ez dakit zergatik izan den, agian, zure alkandora beltzaren lepokoa lepatzetik altxatuak aztoratu nau, agian, alkandora beltzaren papar-hegal luze eta zabalak bistan uzten zuen bular zati estua, lepoarekin eta aurpegiarekin bat eginez, beltxarga ederrenaren lepo luzeeeeeeak. Printzesa, ez, erregina, ez, jainkosa zenirudien, eta horrek eman dizun xarmak eta erakargarritasunak, nire onetik atera naute, ez dakizu zenbateraino, eskua patrikan sartu eta brageta lehertzeaz nuela igurtzi batzuk ere eman ditudala. Baina orduan entzun dut Joxemariren ahots zakarra, kopeta zimurtuz eta betaurrekoen gainetik begirada iluna zuzenduz, ahotsa gehiegi altxatu gabe, baina ederki ikasita daukan nire izena ondo baino hobeto luzatuz: I-ña-kiiiiiii.....

Gero, ordu bi eta erdietan, aldegiteko zeundenean eta eguneroko tristura ahoko zulotik erraietaraino zirt-zart batean garraiatu zaidanean, gezurra bazen ere, sukaldetik emaztea deika zeukala esan diot Josemariri. Orduan, sukaldera hurbildu denean, jaiki eta begiak itxita, muxu eman dizut, Angels, muxu luze eta maitekor bat zure marrubizko ezpain gorri, haragitsu eta gozoetan.

Joxemarik, berriro, I-ña-kiiii.....esan duenerako tabernatik kanpo nengoen, eta etxerantz abiatu naiz. Kanean, arratsaldeak harridura aurpegia zuen, eguzkia euripean eta ostadarra itsasaldean zerutik zintzilikatzen zirelako. Orduantxe hartu dut erabakia. Gaur bertan gutun hau idatzi eta postaz bidaliko dizut, Angels, niri, hitzak ahoan geratzen baitzaizkit tra-tra-trabatuta.

Bihar arte, Angels, bihar arte.

IÑAKI

P.D- Gaur parkean liburu orri zati erre batean bertso hauek irakurri ditut:

...y juntos
somos completos como un solo río,
como una sola arena.

Ez dakit nork idatzi dituen baina asko gustatu zaizkit, eta zuretzako dira, Angels.